

# Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko irailaren 1a / VI. urtea / 194. zenbakia



Javier Aldaiak bizi guztia darama bere baratzen lanean.

JOXE LACALLE

## Hiriko baratzak

Nafarroako edozein herritan bezala, Iruñean ere, Arga ibaiaren ertzean, mota guztietako baratzkiak pilatzen dira Aranzadi eta Magdalena auzoetako zelaietan. Aranzadin baratza lanbide duten hiru nekazari baino ez da gelditzen gaur egun, baina egunero Santo Domingo eta Merkatu Berrian saltzen dituzte ardura handiz hazitakoa. Iruñeko baratzainak dira.

**L**ehengo egunean, Sarajevon serbiarrek eginiko aleungarren sarraskiaren irudiak ailegatu zitzaizkigunean, duela zenbait aste hemengo egunkari bateko lehen orrialdean argitaratu zen argazkia etorri zitzaidan gogora. Bosniako haur batzuk Erriberako herri batera uda-pasa eramanez eta, itzultzeko tenorea ailegatuta, haien agurra agertzen zen argazki horretan. Umeak, bistan da, negarrez zeuden, ederki jakin-eta zer zuten esperoan 'etxera' ailegatuta. Posible da, hagitz, astelehenean Bosniako hiriburuko merkatuan morterokadaka lehertu edo elbarritu zituztenen artean hemen hain goxo hartu ditugun

neska-mutiko horietarik izate.

Haurren ekartze hori (artetik errateko, zergatik haurrak eta ez zaharrak?) ez da bakarrik bosniarrek egin, sahariarrak eta bertze leku batzuetako gatazken seme-alabak ere gertatu dira gisako asmoen xede. Zenbaiten barrenak poliki lasaitzeko balioko du, beharbada. Gainera, lehengo denboretako ilia aberatsetan Eguberriz re' bat mahaira jartzan

### Amen eta omen

AINGERU EPALTZA



zutenean bezain azal-hutsa, nire iduriz. Eskuzabaltasunik handienaren erakutsizat hartuko dute aunitzek, baina niri sadismo gailenaren marka iruditzen zait. Parabisua erakusten diegu eta hango fruituren bat dastarazi ere; hondarrea, ordea, infernura itzularazten ditugu. Euskaraz, horri, ttatto egitea erraten zitzaion, eskaini eta ez eman, alegia.

Tamalez, gero eta sinetsia-go nago. Ume horiek egiatzki

eta behin-betikoz gerlaren infernutik ateratzekotan, naifkeria bakexalea, deus zuzendu beharrean, kalterako gertatzen ari da. Hiru urte joan dira Bosniakoa hasi zenetik eta epe horretan zenbait motatako ekintzak entseiatu dituzte gobernuak nahiz gobernuz kanpoko erakundeek. Haietan guztietan asteazkenekoak baizik ez du nire gogoia bete: jo eta su serbiarren posizioen kontra.

Pena bakarra dut, aise ere lehenago egin ez izana. Jugoslavia ohiari hil aunitz aurreztuko genion eta Mendebaldeari, berriz, itxurakeria franko. Hemengo egunkari batean hango haurren negarra ikusi beharra ere bai.

## Haurren negarra

## XX GURE AUKERAK

### ERAKUSKETAK



**Burlatako** udaletxeko kultura aretoan Jose Maria Pastor 'Artzai-ren' akuarelak daude ikusgai. Erakusketa irailaren 17a bitartean izanen da zabalik. Ordutegia, asteartetik larunbatera, arratsaldeko 7.00etatik 9.00ak arte eta igandeetan, 12.00etatik 14.00ak arte.

**Bertziko** Natur Parkeko Gurditegia eta Jauregiko aretoan 'Baserrian bizi' erakusketa zabaldu berri dute. Bertan, Nafarroako mendietako baserritarren bizimodua erakusten da. Erakusketa urriaren 1a bitartean izanen da zabalik goizeko 10.30etatik 13.30ak arte eta arratsaldeko 16.00etatik 19.30ak arte.

### ANTZERKIA



**1995 eko Herriz Herri** ekitaldien barruan, Trokolo Antzerkiak 'Librotikoak' lana aurkeztuko du gaur Larrasoanako plazan zortzi t'erdietatik aitzina. Bihar, berriz 'Liburulariak' (aurreko lana euskaraz) antzeztuko dute Eltzaburuko frontoian arratsaldeko zortzietan eta etzi, berriz, arratsaldeko 13.15ean Ibargoiti-Getzeko plazan.

**Mutiloabeitin** 1995eko Mozorro Berri ekitaldien barruan, Zirko Ttipia antzerki taldeak 'Munduko malabaristak' antzeztuko du igande honetan. Ekitaldia arratsaldeko zazpitan izanen da herriko kiroldegian.

### MUSIKA



**El ultimo de la fila** talde kataluniarrek Korellan joko du igande honetan. Kantaldia udal kiroldegiko futbol zelaian izanen da gaueko hamarretan.

**Irurtzungo** Kultura Koordinakundeak antolatuta, Modesto akordeoi jolearekin dantzaldia dago gaur herrian. Ekitaldia arratsaldeko zazpi t'erdietan izango da Irurtzungo igerilekuan.

### ZINEMA



**Enerizko** plazan 1995eko Herriz Herri ekitaldien barruan, 'Stargate' filmea eskainiko dute gaueko hamarretatik aurrera. Filme bera Torralba eta Berriobeiti herrietako plazetan ere emango da aurrekoaren ordu berean.

**Irurtzunen**, heldu den asteazkenean, irailak 6, '27 ordu' filmea eskainiko da Foruen plazan gaueko hamarretatik aitzina.

### BERTSO SAIOA



**Atalluko** jai batzordeak antolatuta, Anjel Mari Peñagarikano eta Iñaki Murua bertsoan ariko dira herriko plazan. Kaltaldia bai eguerdian bai arratsaldean egingen dute bi bertsolari gipuzkoarrek.


## NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

### Urteurrena

● Navarro Villoslada da, XIX. mende bukaerako beste hainbat pentsalari, historialari, politikari eta idazlerekin batera —Iturralde, Oloriz, Campion...—, etxeko sabai ideologikoan hautsez estalirik gordetzen ditugun beste altzarietako bat. Denek aipatzen dute baina denak daude nagiak hartuta gainera.

hauetsari astindu bat emateko. Villoslada, beste hainbat bezala, gaurko ikuspegitik deseroso gertatzen da: bere egiten ahal du aberzale batek Carlos VII.aren idazkari pertsonala zena? Bere, ezkerrekoa bada, katoliko sutsua? Bere, navarrista batek, 'Amaia, o los vascos del siglo VIII' bezalako titulu konprometigarria asmatu zuena, «cantor de la raza vasca-tzat» kantatua berau (hala jartzen du eta, Bianako etxeko oroigarrian) horri buruzko pasio politikoak bestelakoak ziren garai urruti eta ez



irakurleek guk atera gozamina atera lezaketen. XIX. neko nobela historikoa oso urruti gelditu zaio gaurko gustu literarioari. Monumentu ondoko ekintza protokolarioan parte hartutakoek erakutsi digute, beti bezala, zein erraza den ura nork bere errota-

kar hitz gutxikoa zen, ez maitatuegi bere herrian; ez naiz bere ideologiaren zale baina errespetoa diot obrari, idazlearengandik bereiz doalako, esan digu Antoñan, gutxi gora behera, bere herrikideari buruz. Eta horri esker omenaldiak omenaldi-antza pixka bat hartu du.

ra inguratzea politikari buruzkoan. Literaturari buruzkoan ez dute mihinean herdoil askorik eduki. Urteurrenaren aitzakian dirulaguntza eske joandakorik ere ez zen faltako, noski. Zerbait onik iragarri dute, bederen: abenduan egiteko omen diren nobela historikoari buruzko ihardunaldiak. Izango da hor aukera, jakina, Villoslada vasco, vasco-español edo zer arraio zen, besteak beste, eztabaidatzeko. Navarrena, behintzat, inork ez dio ukatuko.

Beste idazle batek, Biana-koa hau ere, izan behar zuen benaz omendu duena: politikak mingostutako gizon zatek, 'Amaia, o los vascos del siglo VIII' bezalako titulu konprometigarria asmatu zuena, «cantor de la raza vasca-tzat» kantatua berau (hala jartzen du eta, Bianako etxeko oroigarrian) horri buruzko pasio politikoak bestelakoak ziren garai urruti eta ez

irakurleek guk atera gozamina atera lezaketen. XIX. neko nobela historikoa oso urruti gelditu zaio gaurko gustu literarioari. Monumentu ondoko ekintza protokolarioan parte hartutakoek erakutsi digute, beti bezala, zein erraza den ura nork bere errota-

kar hitz gutxikoa zen, ez maitatuegi bere herrian; ez naiz bere ideologiaren zale baina errespetoa diot obrari, idazlearengandik bereiz doalako, esan digu Antoñan, gutxi gora behera, bere herrikideari buruz. Eta horri esker omenaldiak omenaldi-antza pixka bat hartu du.

bederen: abenduan egiteko omen diren nobela historikoari buruzko ihardunaldiak. Izango da hor aukera, jakina, Villoslada vasco, vasco-español edo zer arraio zen, besteak beste, eztabaidatzeko. Navarrena, behintzat, inork ez dio ukatuko.

Beste idazle batek, Biana-koa hau ere, izan behar zuen benaz omendu duena: politikak mingostutako gizon zatek, 'Amaia, o los vascos del siglo VIII' bezalako titulu konprometigarria asmatu zuena, «cantor de la raza vasca-tzat» kantatua berau (hala jartzen du eta, Bianako etxeko oroigarrian) horri buruzko pasio politikoak bestelakoak ziren garai urruti eta ez

irakurleek guk atera gozamina atera lezaketen. XIX. neko nobela historikoa oso urruti gelditu zaio gaurko gustu literarioari. Monumentu ondoko ekintza protokolarioan parte hartutakoek erakutsi digute, beti bezala, zein erraza den ura nork bere errota-

kar hitz gutxikoa zen, ez maitatuegi bere herrian; ez naiz bere ideologiaren zale baina errespetoa diot obrari, idazlearengandik bereiz doalako, esan digu Antoñan, gutxi gora behera, bere herrikideari buruz. Eta horri esker omenaldiak omenaldi-antza pixka bat hartu du.

kar hitz gutxikoa zen, ez maitatuegi bere herrian; ez naiz bere ideologiaren zale baina errespetoa diot obrari, idazlearengandik bereiz doalako, esan digu Antoñan, gutxi gora behera, bere herrikideari buruz. Eta horri esker omenaldiak omenaldi-antza pixka bat hartu du.

## AHAZTU GABE!

### IKASTAROA



**Andreak**, Emakumearentzako arreta zentroak, emakumeari zuzendutako ikastaro trinkoak antolatu ditu irailera. Lehenengo ikastaroan, nork bere burua maitatzen ikastea eta giza trebetasuna jorratuko dira. 20 ordu iraunen du eta arratsaldeko 17.30etatik 20.00ak arte egingen da. Bigarrenak, komunikazioa landuko du eta 12 ordukoa izango da. Arratsaldeko 8.00etan hasiko da eta 9.30etan akituko da. Bi ikastaro hauek irailaren 4an hasiko dira eta astelehenetik ostegunera bitartean emanen dira. Hirugarrenean adierazpena izanen da ardatza. Irailaren 11n hasiko da eta 24 ordu iraungo du. Izena eman dutenen nahien arabera, goizez edo arratsaldez izan daiteke. Ikastaroetan parte hartu nahi duenak Andreak Iruñeko Nabarrera kalean duen egoitzan eman dezake izena, 15. zenbakiko lehenengo solairuan edo 22 77 14 telefonora deitu.

## ASTEKO PERTSONAIK



Jesus Ganuza Armendariz Iruñeko udaltzainburua

Javier Chorraut Iruñeko alkate eta CDN alderdikedeak Jesus Ganuza Armendariz izendatu du Udaltzaingoaren arduradun nagusi. Nafarroako hiriburuan orain dela 35 urte sortua, Jesus Ganuza 1983an sartu zen Udaltzaingoan. 1990. urtean sarjentu egin zuten eta bi urte geroago ofizial. Jesus Ganuza ezkondu dago eta bi seme-alaba ditu. Udaltzain izan aurretik Irakasletza ikasketak egin zituen. Ignacio Francok uztailaren 7an utzi zuen kargurako nor izendatuko zuten erabakitzeke zenbait proba antolatu zituen Iruñeko alkateak. Probetara zazpi lagun aurkeztu ziren eta denek gaituratu zituzten. Hala ere, Chorrautek Ganuza izendatzea erabaki zuen, batez ere bere esperientziatik.



Jacek Ziober Osasunako jokalaria

K Jacek Ziober Osasunako jokalaria ezingo du jokatu futboleant heldu den lau edo sei hilabeteetan. Asteartean Akileseko zainean ebakuntza egin zioten Nafarroako Klinika Unibertsitarioan aspaldian trabatzen baitzuen oinean. Ebakuntza, Juan Ramon Valenti doktoreak egin zion, erabateko anestesia erabili zuen eta ordubete iraun zuen. Zioberrek hilabetez eskaiola eramanen du eskuineko oinean eta hau kendu bezain azkar sasoiaren izateko ariketak egiten hasiko da. Ebakuntza orain arte egindako saioak ustelak izan direlako egin zioten Osasunako jokalaria. Ariketa fisikoak egin eta gero, Zioberrek lehen zuten sasoi berreskuratuko du ebakuntza egin zion sendagilearen arabera.

## ADI!

### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik', edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Bera

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

### Giltzapeko mirariak


# Lehen Dantzari Txiki Eguna

JON ABRIL / BERA

Igande honetan, irailaren 3an, Berako lehen Dantzari Txiki Eguna ospatuko da. Gure Txokoa dantza taldeak antolaturik, herriko taldeaz gain, bertze bost talde hurbilduko dira Berako karriketara. Bizkaitik Portugaleteko taldeak parte hartuko du, Gipuzkoatik Añorga eta Zaldibiako dantza taldeak egongo dira Beran, Iparraldetik Senperekoa eta Nafarroatik Faltzeskoek osatuko dute egitaraua. Guztira, 150 haur baino gehiago izanen dira Beratik kanpokoak igandean.

Ekintza guztiak goizeko hamaiketan hasiko dira. Haurrak Berako hainbat kaletan banatuko dira, bost gunetan osotara: Ilekua-Altzate, Agerra-Euskalduna, Iturlandeta-Eztegara, Herriko Etxeko plaza-Burgan eta Legia-Kanttonberri. Herriko karrika guztietara helduko dira, beraz, Euskal Herri osoko dantzari txikiak. Talde bakoitzak bere emanaldia dagokion lekuan eskaini ondok, hamaika t'erdietan Gure Txokoa elkartearen egoitzan 'gosari txikia' emanen zaie. Ongi gosaldia eta gero, taldeak berriz ere gune ezberdinetara abiatuko dira euren dantzaz jendaurrean erakusteko. Ondotik, talde guztiak eguerdiko ordu batean Iamotenean bilduko dira eta elkarrekin Altzateko plazaraino joango dira. Bertan Agintariena eta Agurra dantzak eskainiko dituzte.

Haur dantzari guztiak herriko



Euskal Herri osoko dantzari txikiak bilduko dira igandean Beran.

GOIKO

hainbat etxetara joanen dira bazkaltzera, batez ere, Berako dantzarien etxetara. Musika-riek, arduradunek eta antolatzaileek, bestalde, Gure Txokoa elkartearen egoitzan bazkalduko dute elkarrekin.

Arratsalde partean, bostetatik aurrera, dantzari txikiak herriko pilotalekuan elkartuko dira herri bakoitzak bere dantza erakusketa egiteko.

1931. urtetik Berako kulturaz eta kirolaz arduratu den elkarte antolatzaileak, aurrerantzean bi urtetik behin ospatu nahi du dan-

tzari txiki egun hau, urtero egitea posible izango ez delako. Dantzari txiki egun hau antolatzen duten lehen aldia izanik ere, esperientzia franko du gisa bereko jaialdiak antolatzen Gure Txokoa elkartek. 1980. urtean, Euskal Bestetako egitarauaren barruan, Nafarroako Dantzari Eguna prestatu zuen. Gainera, urte guztiko lanaren erakusgarri bat eskaintzen du urtero herriko bestetan dantza talde honek. Jailetako dantza jaialdi honek, hain zuzen ere, urtetik urtera gero eta jendetza gehiago erakar-

tzen ditu. Bi ordu inguru irauten duen jaialdiak dantzari urte osoan zehar ikasi dutena erakusteko balio du. Dantzariak betiko dantzak ikasi berri dituztenekin nahastan dituzte, ikusleen gozamenarako.

Berako dantzez gain, Euskal Herri osoko dantzak biltzen dituen talde beratarak, etengabe dantza berriak ikasten ari baita. Sei urtetik aurrerako haur, gazte eta helduak biltzen dituen elkarte honek, 150 dantzari gora ditu eta herriko musikarien laguntza jasotzen du.



patzen nuen, itsu-itsu, argal-argal. Noizean behin, metadona dosi handi samarrek sortarazten ohi duten hitz-jario zoro eta konprenigaitzen bat pairatu behar izaten nuen: txiste ulergaitzen bat eta, horren gibeletik, «utziko al dizkidazu 500 pezeta?». Nik ezetz erantzuten niolarik bere begi beltzek, aurpegian barna sakon hondoraturik, «hoa popatik hartzera!» esaten zidaten, eta egun pare bat igarotzen ziren bere ahotik hurrengo txiste eroa entzuten nuen arte.

Astelehen horretatik aitzina, alata, egunero ikusi nuen patioan korrika jo eta su. Miraria zirudien. Lazaro, altxa zaitez, eta ibili! Ez zen Lazaro, baina hilik zirudienean altxatu zen, eta ibili ezezik, korrika ere egin zuen. Igandean, lokutorioetan, mirariaren eragilea ezagutu nuen. Niri familia etorri zitzaidan bisitan, eta berari oxigenaturiko ilehori potolo samarra, Pepis andereñoaren makilajea blai eginda. Bisita buruturikoan, bere begi beltzez keinu egin eta guztia argitu zidan: «Hau da hau emakume puska! Bihar estreinako vis à visa izanen dut berarekin. Gogor aritu naiz entrenamenduan, ea huts egiten ez dudana!». Tumatxa!

### Izaba

#### Larra-Larrau bizikleta martxa igande honetan

IRUNEA

'Larra-Larrau Nazioarteko 2. Txirrindulari Martxa' egiten dute igande honetan Izaban, bertako Udalak antolatuta. Osotara 143 kilometroko ibilbidea egin beharko dute partehartzaileek Izabako txokoetan barrena.

Bizikleta martxa honetan parte hartu nahi dutenek bihar bertan eman ahal izango dute izena Izabako eski eskolan, arratsaldeko laurak eta gaueko bederatzia bitartean. Igandean ere, goizeko zazpiketatik zortzi t'erdietara zabalik izango da izena emateko epea. Irteera bederatzietan egingo da eta kontrola arratsaldeko seietan itxi egingo dute.

### Atrarrabia

#### Atrarrabiako Eguna

IRUNEA

Atrarrabiako Eguna ospatuko dute asteburu honetan bertako herritarrek, Etxe Beltza elkar-teak eta Atrarrabiako Udaleko Euskara eta Kultur Zerbitzuak antolatuta. Atrarrabiako Eguneko ospakizunak bihar hasiko dira eta goizeko hamaikak inguruan abiatuko den txirrindulari lasterketa izanen da lehen ekitaldia.

Ekitaldi nagusiak, hala ere, igandean izanen dira. Goizeko hamar t'erdietan argisoinua entzungo da karriketan barrena eta hamaiketan, artisauak bilduko dira Herriko Etxeko plazan euren lana erakusteko. Ordu berean, erraldoi ta buruhandiak ibiliko dira gaiteroen laguntzaz. Goizean ere, Idoskia dantza taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du.

Hurrek ere izango dute zer

egin eta zer ikusi. Hamaika t'erdietan, adibidez, haur tailerrak izango dira Antxo VI Jakintsuaren plazan eta ordu berean ere, malabaristak, zankoak eta Zintzarri txaranga aterako dira Kontseilu enparantzatik.

Eguerdian Idoskia eta Gazte-txe dantza taldeak Kontseilu enparantzian bilduko dira eta bertan eskainiko dute euren emanaldia elkarrekin. Jaialdi taldeko akordeoi joleek musika jarriko dute. Ondoren, ordu bata t'erdietan, herri kirolak izanen dira Kontseilu enparantzian.

Goizeko eta eguerdiko ekitaldi hauen guztien ondoren, herri bazkaria izanen da Kontseilu enparantzian ordu bi t'erdietan. Bazkarian Zintzarri eta Oria txarangek eta Nafarroako Eskolako bertsolariek hartuko dute parte.

### Ihabar

#### Eztebe Deunaren omenezko jaiak

IRUNEA

Jaien hasiera iragarriko duen altxaferoak gaur arratsaldeko seietan egingo du eztanda Ihabarko zeruan, akordeoi eta trikitixa hotsek lagunduta. Astelehena bitartean, besta egiteko aukera ugari izango dituzte bertako herritarrek. Musika, dantza, kirolak, haurrentzako jokoak, eta abar, denek izango dute non aukeratu.

Bihar Eztebe Deunaren eguna izango da eta haren omenezko ekitaldiak goizean hasiko dira. Hamaiketan Meza Nagusia izanen da eta ondoren, eguerdi partean, Lakuntzako Dantzari Txikiak taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du jendaurrean. Goizaldean Ihabarko ingurutxoak dantzatzeko dute gazte eta helduek.

**A**ranzadi auzoko zelaietan hiru baratzain profesional baino ez da gelditzen gaur egun. Javier Aldaia da horietako bat eta gainontzekoak bezala, Arga ibaiaren ertzean lantzen ditu bere barazki guztiak. Nekazari ekologikoa da eta, arbasoen jakituriaz baliatuz, antzinako baratzainek bezala zaintzen du bere lurra. Egunkari honekin mintzatu da baratzainen kontuez.

## Baratzain ekologistak

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Iruñeko Alde Zaharraren magalean, Arga ibaiaren ertzean dira Aranzadi eta Magdalena auzoetako baratzak, bertatik edaten duten urari eta zerutik heltzen zaizkien eguzki izpiei esker. Horko lurra lantzen bizi diren baratzain profesionalen lanari esker ere, noski, fresko-fresko ailegaten dira barazki guztiak Santo Domingoko eta Merkatu Berriko postuetara. Egun, baratzan lanbide duten hiru nekazari baino ez dira gelditzen Aranzadiko zelaietan eta hirurek arbasoengandik jasotako jakituria erabiltzen dute euren patata, porruak, tipulak, piperrak, letxuak, lekak eta beste hainbat barazki lantzeko orduan.

Javier Aldaia betidanik izan da baratzain. Arbasoengandik jaso zuten bere gurasoek gaur egun berak lantzen duen lur puska. Baratzan du lanbide eta baita bizitza ere. Inork baino gehiago dakitela uste duten teknikariak ez ditu aintzat hartzen, ezta ahoa exekutiboan moduan produkzioa eta errentagarritasuna bezalako hitzekin betetzen dituzten sasi- nekazariak ere. «Santo Domingo merkatuan nere barazkiak erosten dituzten emakumeek erraten didate neri zer landu behar duan, ez beste inork. Errentagarritasunari dagokionez, eskua sakelari sartu eta barruan zer daukadan begiratzea nahikoa dut».

Javier Aldaiaren baratzan mota guztietako barazkiek dute leku, erran bezala, eskatzen diotena lantzen baitu. Bere ustez, gainera, barietatea da baratzan on baten sekretua. Ildo horretatik, halaber, aspaldiko barazkiak berreskuratzen saiatzen da Javier Aldaia, Aranzadiko bere lankideekin batera, «gurasoek lantzen zutena». Izan ere, letxua *crispilla* edo tipula txuri goiztiarra bezalako barazki motak, gutxi produzitzen omen zutelako baztertu zituzten garai batean. Javier Aldaiarentzat, ordea, kopurua baino garrantzitsuagoa da barazkien zapore eta kalitatea.

Eta barazkiek zaporerik eta kalitaterik onena izan dezaten, nekazaritza ekologikoa da Aranzadiko baratzainarentzat aukerarik egokiena. «Gaur egungo nekazariak era guztietako produktuak dituzte eskura, baina barazkiek ere mota guztietako eritasunak pairatzen dituzte. Izan ere, halakoek eritasunaren ondorioei baino ez diete erasotzen, ez haren jatorriari». Aldaiak argi du bere gurasoen garaian barazkiek eritasun gutxi izaten zituz-



Javier Ugartek Aldaiaren baratzan egiten du lan uda hasieratik.

JOXE LACALLE

tela eta egun berdin jarraitzeko, haiek egiten zutena egitea da berretzat onena. «Eritasunak zergatik agertzen diren jakin behar dugu, berriro ere ager ez daitezkeen». Hori dela eta, nekazaritza ekologikoa da Aldaiaren aukera, «aurrezaintzeko medikuntza bezalakoak baita».

Bere arbasoek berotegiak era-biltzen ez bazituzten ere, bestalde, halakoak bai ikus daitezke Javier Aldaiaren baratzan, uzta luzatzeko asmoz. «Gure aita zenak maiatzean lantzen zituen bi mila tomate. Nik, berotegiei esker, mila martxoan edo apirilean lantzen ditut eta besteak maiatzean, produkzioa mailakatuz». Hala ere, badira bere ustez inolako ardurarik gabe berotegietan ere produktu kimikoak botatzen dituztenak, landare eta barazkiei kalte eginez.

Aldaiaren hitzetan, hainbat nekazariaren jakineza da arazorik larriena, «batez ere baratzan txiki bat denbora pasatzeko baino ez

**N**ekazaritza ekologikoa aurrezaintzeko medikuntza bezalakoak da, eritasunen jatorria bilatzen baitu»



Arga ibaiaren ertzean kokatzen dira Iruñeko baratzak.

**G**azteek badute baratzan lan egiteko gogo eta afizioa baina zaila da, oso garestia baita lurra»

dutenena». Teknika ez dute eza-gutzen eta profesionaltasun gutxiak dira bere ustez eta, ondorioz, batere ardurarik gabe aritzen dira, «ez baitute garapena barneratu». Aranzadi-koak dioenez, «Iruñean jende guztiak dauka barruan nekazaritzaren harra eta beti itzultzen da baratzara». 50-70eko hamarkadetan baratzan utzi eta orain itzuli denak, ordea, ez daki baliabide berriak nola erabili eta kalte handiak eragin ditzake, Aldaiaren iritziz.

Aranzadiko zelaietan baratzain izatea ez da dirudien bezain erraza. Nekazariak duten arazorik larriena lurraren prezioa izaten da. «Lurra espekulatuzaileen esku dago eta eurek ezartzen dute prezioa». Horrek asko garestitzen du baratzan. Javier Aldaiaren lur puska berea da, baina beste askok errentan dute eta urtero, bi milioi inguru ordaindu behar izaten dute gutxienez 1,7 hektarea dituen lur eremu batengatik.

Hiriko baratzak

«Gazteek badute baratzan lan egiteko gogoia eta afizioa, baina zaila da, garestia baita», azaldu du Aranzadiko baratzainak. Aranzadiko baratzaren etorkizuna, hortaz, ez dago batere argi Aldaiarentzat, «faktore askok eragiten baitute». Hala ere, argi du zailtasun askori egin behar diotela aurre eta zerbait lortu ahal izateko gogor egin behar dela lan.

Konpetentzia da beste arazoetako bat, «jende guztiarekin borrokatu behar dugu gure barazkiak saldu ahal izateko». Profesionaltasuna eta afizioa funtsezkoak dira joko horretan parte hartu ahal izateko, Aldaiak dioenez. «Etxekoak kanpokoak baino hobea izan behar du eta, horretarako, haziak kalitatea kontuan hartuz aukeratu behar dira, ez kantitate», azpimarratu du Aranzadikoak. «Gure barazkiek badute edonon lehiatu ahal izateko kalitatea, baina hala ere borroka zaila da». Javier Aldaiaren barazkiak Santo Domingoko merkatuko bezeroek erosten dituzte, bertara eramaten baitituzte egunero bere arrebek. «Nahi dutena produzitzen dugu eta horrela duguna erosten dute. Oreka zaintzen da». Aldaiaren hitzetan, merkatuari esker jarraitzen dute bizirik Aranzadiko baratzek, «ez baita ohitura galdu. Merkatuak dirauen bitartean bertara joango gara barazkiak saltzera eta horrela gure lurak ere bizirik iraungo du». Bezeroarekin duten harreman zuzena ere funtsezkoa da, bere ustez.

Oreka, bestalde, gauza guztietan gorde behar da Javier Aldaiak dioenez, horixe baita nekazaritza ekologikoaren ezaugarri garrantzitsuenetakoa bat. Baina baratzan berak aldarrikatzen duen oreka beste hainbat alorretan ere eskatzen du Aranzadikoak. Zehazki, Arga ibaiari buruz mintzatu da baratzainak. Iruñean ibaiaren egoera oraindik onargarria bada ere, Arazuritik behera erabat kutsatuta dagoela salatu du baratzainak. Ibaiaren norabidea, gainera, «leku askotan aldatu dute, urak lekua behar duela kontuan hartu gabe. Ibaia handitzean eta inguruko bazter guztiak txikitzen dituzenean, orduan hasiko dira negarrez. Arazo horiek, ordea, lehendik aurrikusi behar dira». Javier Aldaiak eta inguruko beste baratzainek, hain zuzen ere, ongi dakite uholdea datorrenean zer egin behar duten eta dena prest dute behar izanez gero barazkiak ahalik eta hobekien zaintzeko. «Inguruko zuhaitzek ere babestu egiten gaituzte».

Baina uholdeez gain, lehorteen arazoa ere aurrikusi beharreko arazoa da Aldaiarentzat. «Zenbat ur dagoen ikusi behar da eta horren arabera, landu. Guztiz aurkakoa egiten ari dira, ordea, landu eta landu denentzat urrik ez dagoela kontuan hartu gabe. Gaurkoa baino ez zaigu axola eta gero gerokoak, baina ezinezkoa da». Aldaiaren ustez, halaber,



Negutegiak uzta luzatzeko erabiltzen ditu Javier Aldaiak.

**G**ure barazkiek badute edonon lehiatu ahal izateko kalitatea baina konpetentzia gogorra da»

lehortea datorrenean negar egin beharrean, «zuhaitz gehiago landu beharko liriteke. Baina hori ez zaio inori bururatsen».

Aranzadiko baratzan, Aldaiak erran bezala, faktore askok eragiten dute eta noiz arte iraungo duen jakitea ezinezkoa da. Aranzadiko nekazaritza triste jarritzen da baratzaren etorkizunari buruz gogoeta egitean: «1600. urteko hainbat idatzitan jada, zelai hauen berri ematen da, gaur egun dauden bezalaxe». Aranzadiko baratzak bere guraso eta

arbaso guztien etxea izan da eta berak ere bertan eman ditu bere bizitzako urte guztiak. Bere lanak nork jarraituko duen, ordea, ez du argi: «Nere iloba aritzen da, berak jarraituko du agian, baina ez dakit». Tristura aurpegian nabaritzen zaio jada betiko desagertu diren baratzak gogoratzen: «Errotxapean bizi eta lan egiten zuten Nafarroako nekazaririk onenak, baina jubilatu eta inork ez du haien lana jarraitu. Beraiekin galdu dira hazirik harrigarrienak».

## Ugarte: «Fakultatean irakatsi ez zidatena ikasi dut baratzan»

E. E. / IRUNEA

Javier Ugarte Logroñokoa da eta uda hasieratik Javier Aldaiaren baratzan ari da lanean. Ingeñari agronomo izateko bidean dago, aurrean amaitu baitu azken ikasturtea eta karrera bukaerako lana egitea baino ez zaio falta. Uda bukaera arte geldituko da Javier Aldaiaren etxean praktikak egiten. «Nik ikasten dudun bitartean baratzan laguntzen diot, eta trukean berak soldata ematen dit» dio Ugartek. Iaz ere, uda garaian, Aldaiaren etxean izan zen Javier Ugarte lanean, eta aurrean berriro itzuli da, «iazkoa erabat esperientzia positiboa eta pozgarria izan baitzen niretzat».


Logroñokoarentzat, edonola ere, funtsezkoa da halako praktikak edo lanak egitea, «fakultatean inoiz irakatsiko ez digutena ikasten baitugu». Bere ustez, ezberdintasun handia dago klaseko teoriaren eta baratzako errealitatearen artean. Halaber, Javier Aldaiak bezala, nekazaritza ekologikoaren aldekoa da Javier Ugarte eta «fakultatean ohizko nekazaritzaren moldeak baino ez ditugu ikasten».

Hori dela eta, ikasgelatik kanpo bilatu du Ugartek jakintza iturria eta Javier Aldaiaren etxean aurkitu du. Pozik dago harekin lanean eta berriro ere etortzeko prest agertu da. Nekazaritza ekologikoari dagokionez, halaber, Nafarroak bizi duen egoera bere herrialdekoa baino askoz hobea dela azpimarratzen

du, «hemen Nafarroan beti izan baitira puntakoak alor honetan». Javier Aldaia, hain zuzen ere, orain dela hamar urte inguru murgildu zen nekazaritza ekologikoan. «Baina guk ez dugu ezer asmatu, gure arbasoek aspaldi asmatu baitzuten egun dakigun guztia».

Nekazaritza ekologikoa, finen, arbasoen jakituria erabiltzea baino ez da, Javier Aldaia Aranzadiko baratzainaren ustez, baina egun dauden aurrerakuntzak ere guztiz ahaztu gabe. «Baliu duena, landareentzat onargarria dena erabili behar da eta gainontzekoa baztertu. Makinak, bestalde, egungo aurrerakuntzak, neurritz erabili behar dira, baliagarriak eta barazkientzat onak diren bitartean». Funtsean, hala ere, antzinako baratzain modura, ongari naturalak erabiltzen ditu nekazari ekologikoak, kimikoak alde batera utziz. Eta eritasunak eta izurriteak murrizteko luraren txandaketa egiten du.

Javier Aldaiaren iritziz, hala ere, gure arbasoek izan ez zuten abantaila dute gaur egungo nekazariak, ekologiarik zientziak, hain zuzen ere. Bere ustez, behin eta berriro porrot eginez ikasten zuten lehen, baina egun, jakintza berri honi esker, «zer egin behar dugun eta zer ez badakigu». Hala ere, badira oraindik berrikuntzak behar den bezala barneratu ez dituzten baratzainak eta neurritz kanpo erabiltzen dituzte, «guztien kalterako».



Mota guztietako barazkiak lantzen dituzte Aranzadiko baratzan.

**Z**enbat ur dagoen ikusi behar da eta horren arabera landu, baina guztiz aurkakoa egiten ari dira»

# Kritikontzi



## Euskaldunak al dira?

XANTI BEGISIRISTAIN

**A**izak! Entzun al duk hori? Tourra Miguel Indurain «euskaldunak» irabazi duela esan dik oraintxe bertan irriatiak. —«Euskalduna», eh! Ba, nik ez zioat oraindik euskaraz mintzaten inoiz aditu! —Nik ere ez, baina hala eta guztiz ere, telebistan ere sarritan esaten dizkiate horrelakoak. —Badakik, gaur egun gauza guztiak dituk errazagoak. Lehen igitia erabiltzen genian, gero sega, beranduago sega gailua eta orain traktoreak ia-ia dena egiten dik. Hortaz, euskalgintzan ere oraingo modernitatearekin, agian euskara zipitzik jakin gabe ere jendea izan ahalko duk euskalduna. —Ez zekiat, ez zekiat, baina, gramatikaz deus ere ez baldin badakit ere, esan duan azken hori oso harrigarria iruditzen zaidak. Momentuz behintzat alde batean utziko ditugu baserriar hauek beren harridurazko elkarriketarekin; izan ere, neronek ere berdin esan dezaket, alegia, telebista eta irratietan sarritan entzuten direla horrelako izendapenak. Bitxia bada ere, komunikabide horien arabera, esate baterako, Miguel Indurainez gain Ruben Beloki, Patxi Eugi, Julio Caro Baroja, Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Martin Fiz, Herri Torrontegi, Mari Abrego, Maria Bayo, Iñaki Fresan, Alberto Be-

rasategi, Kepa Junkera, eta abar, eta abar, beste askoren artean bakar batzuk baizik ez aipatzearen, ba, diodan bezalaxe, irati-telebista horien arabera pertsona horiek guztiak euskaldunak dira (eta barka nazatela baten batekin hanka sartu baldin badut). —Nahiago nuke egia balitz! —pentsatu du AEK-koak. «Eta baita nik ere!».

Baina zoritxarrez gauza bat da esana eta beste bat oso ezberdina izana. Ez dakit konturatu zaretan, baina kasu gehienetan gainera, lelo hori beti esan eta berresaten dute Euskal Herriko jende nabarmenari buruz. Asmoa ongi dago baina egia ez da horrela. Zergatik ez ote dute berdin esango pertsona xumeei dagokienean?

Ikus dezagun pixka batez nola definitzen duen «euskaldun» hitza Elhuyar hiztegi entziklopedikoak: «Euskaldun. Adj. eta iz. 1. Euskaraz dakiena, euskaraz mintzaten dena. 2.(hed) Euskal Herriko biztanlea». Polemikan sartzeko batera gogorik ez dudalarik, adierazi behar dut nire ustez nahiko garbi gelditzen dela nondik datorren «euskaldun» hitza eta zein den bere lehen esanahia, «euskara duena» alegia.

Bide beretik jarraituz, esango nuke oso ongi derizodala EGUNKARIAK erabiltzen duen jokabideari, hots, «euskaldunak» eta «euskal herritarak». Horrela argi eta garbi gelditzen da nortzuk diren «euskaradunak» eta nortzuk ez. Ez dezagun ahaztu, komunikabi-

deen helburu nagusienetarikoa bat informazio gardena ematea dela. Honekin ez da inolako eragozpenik jartzen gero informazio hori osatzeko nahi izanez gero, esaterako, «bertako» ala «kanpoko» euskalduna, nahiz erdalduna, nahiz dena delakoa.

Kontura gaitzen, onartuko baldin bagenu Miguel Indurain euskalduna dela, orduan berdindin ontzat eman beharko genuke Alfredo Jaime, Lola Eguren, Buesa, Odon Elorza, J.C. Alli, J. Aizpun, J.I. Del Burgo, eta abar ere euskaldunak direla, eta hori gogor samar gerta lekiok Euskal Herriko euskaradun bati baino gehiagori. Eta arren, ongi uler bekite! Horrek ez dut inor gutxietsi nahi, alderantziz, gauzak eta kontzeptuak argitu eta gardendu bai. Era berean, hemen aipatu ditudan erdaldunak badakit izan litezkeela euskaltzaleak, euskal odoletakoak, edo ez, eta abar, baina nekez euskaldunak nere iritzia apalean, euskara ez dakiten bitartean.

Argi dago komunikabide bakoitzak bere irizpideak erabiltzen dituela eta modu berean jarraituko duela nork bereari eutsiz, honengatik guztiarengatik eta laburbilduz, bukatzeko jakinarazi nahi dizuet ni pertsonalki askoz gehiago konbentzitzen nauela EGUNKARIAren jokamoldeak, eta era bertsuan gehiago natorrela bat Larraungo baserriar euskaldun jakintsuekin, Miguel Indurain «euskalduna» dela esaten duten sasiadituekin baino.

## Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Xuri ta gorrien arteko liskarrak

Hegoaldeko euskaldunen artean, nahiz berri historikoen zertzelada zirtzil desenkusatuak baino ez ukan gogoan, edozeinek badu aditu karlistadei buruzko zer edo zer, eta nork ez du dantzatu txapel gorri-txapel txurien porrusalda? Hegoaldekoek, ordea, horren ezaguna ez duten gauza bat hauxe da, Iparraldeko abiada historikoa, Frantziako historia modernoaren barruan koka beharrekoa bederen: 1789.ean Frantziako Iraultza; 1808.ean Napoleonen agintaldia; 1830.ean Bigarren Iraultza; 1848.ean Bigarren Errepublika; 1852.ean Napoleonen III.aren Enperadoretza; 1870.ean Hirugarren Errepublika.

Hasiera batetik aldeko eta aitziko jarrerak zorrotz ziren, eta bakoitza bere estratergiari atxekitu zitzaion buru belarri. Iraultza jazo zenetik gutxira, 1793 urte inguru, egile, data, leku, edota editore izenik gabeko 8an egin 36 orrialdetako lantxa hau ageritzen: *Persekuzioezko denbora hontan Christau leialek atxeki behar duten bizi moldea: Frantzia aldeko eskualdunei*. Giro honetan xuri ta gorrien arteko gatazkak garatu ziren, Frantziar zeuden aldaera politikoko ezberdinen artean. Berlingo Hormak egin lukeen antzera, joerak oro bi muturretan banatzen ziren makia-beloki. Noski egoera guziz estrapolarria hagitzen dela Hegoaldeko, beti ere koloreak ordezkatu ezker. Lemizikoak erregeak, errepublikaren aurkari amorratuak, eta elizkoi osoak guztiz. Ostera, gorriak errepublikazaleak, aurrerakoiak, eta Elizak duen potereari arront aitzikoak. Elkar gorrotatzearen beste arrazoi bat eskolen zioan zetzan. Gorriek eskola publiko aldarrikatzen zuten, eta horrela Hirugarren Errepublikarekin, Jules Ferry Hezkuntza Ministrariak (1879-1883) lehen mailako heziketa derrigorrezko, dohain eta laikoa ezarri zuen 1881.ean.

Euskal lurraldean Gobernu eta zenbait estamentu poterdunen artean, Eliza berezik, harreman kaxkarrak gertatu ziren. Aipatzekoa da Intxauspe eta Diharasarriekin loturik dagoena. 1889.eko hauteskundeak zirela eta, Prefekturak zenbait erretore arriskutsu lekuz aldatzeko eskatu zion Baionako Diozesari. Orduan, apezpikurik ez baitzegoen, Kapituloaren Bikario zen Intxauspek ezetz borobil batekin ihardetsi zion potere zibilar. Handik gutxira, Jaufret apezpiku berri izendatu zen Baionarako, eta Intxauspe erabat bazterturik geratu ostean, Eliz Barrutiko 19 apez aldatu ziren herriz. Erretore arriskutsu hauen artean Laurent Diharasarri zegoen. Saratar hau Kanboko elizparrokia utzi beharrean egon zen, Orzaizkora joateko 1890. urtean. Baina hauxe, kaxkago-

gor, konformegi ez omenzengeratu, eta Erromara jo zuen justizia eske. Hor etzuen lortu erabakiaren adaketa, baina Aita Santuak bere serbitzaile hartu zuen. Lan frango izkiriatu zituen, hekien artean Maulen olerki sariketa batean garaile suertatu Madalen Larralde saratarra hamabortz urtetan illa 1896.ean, edo Gristino legea laburzki, baina orain gehien interesatzen zaizkigunak bere bi itzulpen hauek datezke: *Aphezen dretchoak eta eginbideac eletzionetan eta Erlisionearen ichtoria laburzki*, biak 1890.ekoak. Diharasarri deputatu aurkeztu zen hauteskundeetan 1.552 boto gutiago lortuz bere aurkariak baino 1902.ean.

Halarik ere, egoera gizakoi hauek hobe ikusteko, oso polita gerta daiteke Elizanburutarren ereduari so bat egitea. Michel Elizanburu Errekar Heletan sortu zen 1826. urtean. Aita mugazaina zuela, Irubek Donpetirin zegoen postuko arduradun izendatua izan zen, Micheli Baiona ondoko Salletarrek duten eskolara egunero oinez joatea egokitu zitzaionlarik. Hauxe arrazoi, edo bokazio goiztiar zuela, kongregazioan sartzea erabaki zuen, 1814. urteko uztailaren 15 batean Tolosako apezgaitegiratuz. Ikasketak burutu eta nagusiek Akizera destinatu zuten irakasle lana betetzeko. Handik gutira, Hazparneko eskoletan zegoen zuzendaria erdalduna zelako edo Frère Innocentiusen balio handia ikusi zutelako, nagusiek auleratu zuten betebeharraren aitzinera eramateko. Hango lana ez omen zen biziki erraza. Haur ugari, gehienak lapurtarrak izan ere, baita beste euskal herrietatik etorritakoak, bertan euskalki ezberdin eta hiru hizkuntzak aisa adi zitezkelarik. Bere lanari gogorkiro lotu zitzaion eta bere bizitzaren azken 47 urte eman ostean, bertan zendu zen 1895. urtean. Bere lanen artean badira erlijiozkoak direnak: *Joannes Batista Dohatsuaren bizia*, 1891.ean Baionan agertu zena. Bertan 1888.ean Erroman dohatsu egin zuten Salletarren sortzailearen bizitza azaltzen da. 1892.ean *Sakelako liburuxka edo gristino guzientzat on den esku liburu ttipia* izenburuko idazkia agertarazi izan zuen Baionan ere. Bi hauez gainera, baditu erlijio gaia ukitzen ezduten beste hiru. Lehendabizikoak, Txomin Agirrerren ildoaren barruan egon litekeena, *Lehenagoko eskualdunak zer ziren* izenburua du, Baionan ageri zena 1899.ean. Bertan aurreko euskaldunen bizitza idilikoaren iduri erreplikatu aurkezten du. Baina, bere «txuritasuna» hobekien erakusten duena bere bi libururik interesgarrienak ditugu, masonei buruzko bat eta Frantziako errepublikaren gainean diharduen beste bat.



■ Iruñeko Hiria Xake Torneo Irekiko bederatzigarren jardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 5ean jokatu. **Gabriel Del Rio**, 2.350 ELOkoa (Espainia) — **Mario Gomez**, 2.465 ELOkoa (Euskal Herria).

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,d6; 6.Ac4,e6; 7.Ab3,Ae7; 8.Ae3,0-0; 9.0-0,a6; 10.f4,Zd4; 11.Ad4,b5; 12.e5. Borroka hasi da, eta txinpartak ere agertuko dira. Beltzek 'd5' eginez gero, alfilar irteera oztopatuko liokete ('b7' laukiaren bidez).

12.....e5; 13.e5,Zd7; 14.Ze4,Ab7; 15.Zd6. Izugarri ongi kokatu da zaldia. Alda daiteke, baina txuriei aukera zabalak eskainita.

15.....Ad6; 16.d6,Dg5; 17.De2,e5; 18.Ae3,Dg6; 19.aG-


d1,Eh8; 20.c3,f5; 21.Ac2,Gf6; 22.h4,h6; 23.Gf2,Df7. Alfilarren presioa ebitatzea zen helburua. Baina aurkaria sunsitzeko parada sumatuta, txuriek ez dute barkatuko. **IKUS KOADROA.**

24.Ag5,g5; 25.g5,Ge6; 26.Af5,Gf8. Mate arriskua dago ('g6', 'Dh5').

27.g6,Gg6; 28.Ag6,Dg6; 29.Gf8 xa,Zf8; 30.d7,Zd7; 31.Gd7. Partida erabakita geratu da.

31.....Ac6; 32.Gd8 xa,Eh7; 33.Dd3. Dama aldatzea amaiera da.

33.....e4; 34.Dh3 xa,Dh6; 35.Df5 xa,Dg6; 36.Dg6 xa,Eg6; 37.Gd6 xa. Beltzen erabateko sunsipena. Ederki jo eta jo aritu ziren txuriek. ■



**P**lazaolako Partzuergo Turistikoak bere eskaintzaren berri ematen duen argitalpen elebiduna argitaratu du. Egunkari baten itxura du, eta jatetxe, os-

tatu eta landetxeen zerrendaz gain, jai, ekitaldi eta abarren berri ere ematen du. Halaber, Plazaolako trenaren historia laburra jaso dute argitalpen berri honetan.

## Plazaolako egunkaria

E. E. / IRUNEA

Plazaolako Partzuergo Turistikoak bere eskaintzaren berri ematen duen argitalpen elebiduna kaleratu du. Argitalpenak egunkari baten itxura du eta jatetxe, ostatu eta landetxeen zerrenda agertzeaz gain, Plazaolako trenaren historia edo euskal mitologia gaitzat dituzten hainbat artikulu ere jasotzen ditu, besteak beste. Oro har, kanpotarrei eta baita bertako herritarrei partzuergoaren jardueraren eta egin daitezkeen ekitaldi guztien berri ematea da argitalpen horen helburua.

Egunkaria uztailaren erdialdean kaleratzea izan zen Plazaolako Partzuergo Turistikoaren hasierako asmoa, baina zen-

kura daiteke Plazaolako Partzuergo Turistikoaren argitalpen berria.

Patxi Saez Lekunberriko Turismo Bulegoko arduradunak egunkari honi azaldu dioenez, «informazio iraunkorra» eman-go lukeen argitalpena lortzea zen Plazaolako Partzuergo Turistikoaren helburua. Hainbat bilera egin zituzten partzuergoko kide guztiek zer egin erabakitzeko asmoz eta azkenik, egun hauetan kaleratu berri den argitalpena sortu da. Urte osorako balio duen informazioa biltzen du Patxi Saezen arabera, kaleratu berri den egunkaria. Hala ere, udazkenean beste argitalpenik ere kaleratuko dute ziurrenik. Datoren udan, halaber, egun hauetan argia ikusi duen egunkaria berri-

tuko dute bitartean sortutako informazio eta datuak jasoz. Partzuergoaren argitalpen berriak, dena den, «egun gurera hurbiltzen diren kanpotarrek beharrezko dituzten datu eta informazio guztiak jasotzen ditu».


**DATU BITXI ASKO** Plazaolako Partzuergo Turistikoak bai kanpotarrei zein bertako herritarrei zuzendutako argitalpena kaleratu du. «Alde batetik, kanpotarrek herri bakoitzan dauden zerbitzuak, ekitaldiak, jaiak eta beste hainbat gauza jakin dezakete argitalpen horri so eginez eta bestetik, bertako herritarrei ere, partzuergoaren beraren jardueraren berri ematen zaie, hobeto ezagutu dezaten», azaldu du Patxi Saezek.

ateratuko burdina Plazaolatik Andoainera eramaten zuen tren zaharra, Donostia eta Iruñea lotzen zituen bidaiari tren txiki bilakatu zen. Orduz geroztik, 50eko hamarkadara arte, jende askoren laguna izan zen tren hura. Azkenik, 1953. urtean, hiru guda ezagutu eta gainditu zituen trenak, ezin izan zuen trenbidea izugarri hondatu zuen uholdea gainditu eta zerbitzua bertan behera geratu zen. Autobusak kompetentzia gogorra ziren eta 1958. urtean trena betiko gelditu zen.

Bestalde, 'Nafarroa berdetik' eta 'jan eta lo egiteko lekuak' izeneko artikulek, partzuergoak

eskaintzen dituen eta herrietako beste hainbat zerbitzu ere aipatzen dituzte. Halaber, 'Plazaolaren ibilbideak' izeneko idatziak, Lekunberri, Leitzalde eta inguruko zokoetan zehar bisitariek egin ahal dituzten ibilbideak azaltzen dira. Euskal mitologia ere da argitalpen honen orrietan ageri den beste gaia.

Azkenik, herrietako jaiak, ekintza kulturalak, kirolak egiteko lekuak, eta abar zeintzuk diren argitzen ditu Plazaolako Partzuergo Turistikoak kaleratu duen egunkari modukoak. Halaber, herriko errezeta famatuene-



bait arazo sortu, eta argitalpena geroago kaleratu behar izan dute. Ekainean hasi ziren lanean eta abuztuaren lehen astean kaleratzeko prest zegoen.

Plazaolako Partzuergo Turistikoaren egunkariaren hedapenari dagokionez, bestalde, herritarren artean banatu dituzte aleak lehenik eta behin, Larraun-Lekunberri, Ultzama-Basaburua-Imotz eta Leitzaldean, hain zuzen ere. Halaber, Nafarroako Gobernuaren bitartez, herrialde osoko turismo bulegoetan ere es-

**B**ai kanpotarrei, bai bertakoei zuzendutako argitalpena da Plazaolako Partzuergo Turistikoak kaleratu duena.

Egunkari itxura duen argitalpen hau, beraz, hainbat ataletan dago banatua. Lehenik eta behin, ongi etorria ematen die irakurle guztiei Jose Maria Aierdi partzuergoko lehendakariak. Halaber, 'Trenaren memoriak' izeneko artikuluak Plazaolako trenaren historia laburra kontatzen du, hainbat datu interesgarri jakinaraziz: Trenbidearen inaugurazioa, adibidez, 1914. urteko urtarrilaren 19an egin zen, bidea elurrez beteta zegoela. Egun hartan, Gipuzkoako meategietatik

**T**renbidearen inaugurazioa 1914. urteko urtarrilaren 19an egin zuten, bidea elurrez betea zegoela.

kin batera, kanpotarrek ikas dezaten, gehien erabiltzen diren hitzak jasotzen dituen hiztegi txikia prestatu dute argitalpenaren arduradunek. Bestalde, herrietan asko erabiltzen diren beste hainbat hitzen esanahia azaltzen duen beste zerrenda bat ere argitaratu dute. «Badira euskaraz asko erabiltzen diren hitzak, trikitixa edo herri kirolak bezalakoak, adibidez, eta horien esanahia azaltzen duen zerrenda oso baliagarria da kanpotik etortzen diren bisitari guztientzat».

# «Bizimodua latza da Goman»

ANA UNANUE / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Zairek Ruandako milaka errefuxiatu kanporatu zituen joan den astean. Zer egoeratan daude orain errefuxiatuak?

**RAMON AROZARENA.**— Gauzak apur bat baretu dira eta errefuxiatuak 'normaltasunera' itzultzen ari dira pixkanaka. Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusiak (UNHCR) errefuxiatuak euren borondatez Ruandaratzeko ahaleginetan dabil,

zain egoten dira, gehienetan nahikoa eskasa izaten den janariaren zain, ur bila joaten dira iturrietara eta egur bila oihanera. Horiek dira ohiko zereginak, eta hortik aurrera beraiek asmatu behar dituzte denbora pasatzeko moduak. Egoera latza izan arren, eremuen barruan merkataritza ugari dago. Ez dakit nondik ateratzen dituzten gauzak, baina denek saltzen dute zerbait (janaria, beraiek egindako tresnak, etabar), harrigarria da. Kanpoko laguntzaren menpe

batez ere. Gurasoek eta irakasleek eskola sare txiki bat antolatu zuten eta niri koordinazioaz arduratzeko deitu zidaten. Sarea zabaldu behar nuen —ekainean 21.000 ume eta 500 irakasle genituen—, eta aurrekontua zehaztu. 200.000 dolarrekoa atera zitzaidan. Laster, irailetik aurrera, 27.000 ikasle izango ditugu. Hasieran umeak eta gazte txoak okupatzea genuen helburu nagusi, baina aurrerantzean gogotik helduko diogu haien hezkuntzari.

dirudi halako jendetzak luze iraun dezakeenik kanpoko laguntzaren menpe, baina, bestalde, ezerk ez du adierazten egoera aldatzeko bidean denik. Eta aldatzekotan, Zaireko Gobernuaren mehatxuengatik aldatuko da. Zairek argi eta garbi esan du ez dagoela egoera luzaroan agoantatzeko prest eta urte amaierarako errefuxiatuak alde egin behar dutela. Ikusteko dago zer nahi duen (Zairek) benetan, nazioarteako iritzi publikoari arazoa konpontzeko astindu bat eman —kasu honetan zuzena irudituko litzaidake, orain arte ezer gutxi egin baita—, edo nazioarteari errefuxiatuak hartuz egin dion mesedea garestiago saldu. Gaur egun hutuak eta tutsiak Ruandan elkarrekin biziterik ez dutela ikusirik, irtenbide bakarra jendea Zairen eta Tantanian sakabanatzea dela pentsatzen hasiak dira zenbait. Hori niretzat Bosnian ikusten garena onartzea litzateke, hau da, gizakiak elkarrekin bizitzeko gauza ez garenaz nor bere etnikoekin egon behar duela derrigorrez. Eta, era berean, errefuxiatuei euren herrira itzultzeko eskubidea ukatzea litzateke. Gobernuak kanpoko erakundeetakoie aldegiteko eskatu diete, eta ez dut uste segurtasunagatik denik, arazoa ustelzen uzteko asmoa dutelako baizik.

**EGUNKARIA.**— Adiskidetzeari lor daiteke Ruandan?

**AROZARENA.**— Adiskidetzeari da helburua, baina horretara iristeko urratsak eman behar dira. Kontuan izanik ruandar asko joan den urteko sarrasketan aktore eta biktima izan zirela, adiskidetzeari gehiegizko helburua izan liteke. Nik behin eta berriro esaten diet ez egoteko kanpotarren laguntzaren zain. Bakoitzak bere gain har dezala dagokion erantzukizuna eta negoziatzen ditzatela itzulera baketsurako gutxieneko baldintzak. Oraingoan elkarbizitza baketsua, alde aurretik hitzartutakoa, aski izango litzateke. Baina Kigaliko Gobernuak hiru gutziak hiltzailatzat jotzen dituen bitartean, oso zaila iruditzen zait.

## Ramon Arozarena


IRAKASLEA



Soslaia

### Ermitagañatik Zairera

Arizkunen orain dela 52 urte sortua, Ramon Arozarena Ermitagañako institutuaren ari zen irakasle gisa Ruandako errefuxiatuen eremu batera, Gomara (Zaire) hain justu, joateko Caritasen proposamena jaso zuenean. Baztandarrak lehendik ere ezagutzen zuen Ruanda —duela hogeita bost urte emaztearekin egon zen irakasle lanetan—, eta ez bairik gabe onartu zuen eskaintza. Urterik abiatu zen Gomarantz, orduan esan ziotenez sei hilabeterako, baina bere zeregina uste baino gehiago luzatu da. Iruñean atsedenditxo bat hartu ondoren, bi aste barru itzuliko da Gomara. Arozarena Euskadiko Ezkerrako parlamentari izan zen 1991. urtera arte eta oraindik adi jarraitzen ditu Nafarroako politikagintzako gora-beherak, nahiz eta askoz ere pasio gutxiagorekin. «Ruandan izan ondoren, zenbait gauza huskeriak iruditzen zaizkit orain», dio.



Ramon Arozarena Ermitagañako institutuaren aurrean.

EGUNKARIA

baina oso gutxi hurbiltzen dira horretarako jarri dituzten kamioietara. Errefuxiatuak beldur dira eta ez dute itzuli nahi aurretik akordiorik ez bada, hau da, itzulerarako baldintzak hitzartzen ez badituzte. Zaireko Gobernuak oraingoan gelditu egin ditu kanporaketak, baina ezin da esan errefuxiatuak itzularazteko politikak erantzun handia izan duenik.

**EGUNKARIA.**— Kanporaketak hasi aurretik, nolakoa zen bizimodua Gomako errefuxiatu eremuetan?

**AROZARENA.**— Oso zaila da hori azaltzea. Goma inguruan lau eremu handi daude, 800.000 lagun osotara, eta horietan esperoan egotea da zeregina ia bakarra. Janariaren

daude, baina aldi berean bizi-rik daudela eta animazioa, giroa dutela erakutsi nahi dute. Psikologikoki deprimituak ikusten. Gainera, izugarriko tragedia pertsonalak bizi izan dituzte, kasu askotan beraiek ere tragedia horien protagonista izan dira, eta horrek duintasuna galduarazi die. Bizimodua latza da Goman, bai kondizio materialengatik, eta baita etorkizun faltagatik ere.

**EGUNKARIA.**— Zein da zure zeregina?

**AROZARENA.**— Elikadura eta osasun arazoak gutxi gora-behera konpondu ondoren, nazioarteko Caritasen hezkuntzari ekitea erabaki zuen, umeak eta gazteak okupatzeko

**EGUNKARIA.**— Posible da, hain egoera dramatikoan?

**AROZARENA.**— Ni neu kezka horrekin joan nintzen. Ikasketak programak bertako irakasleek egiten dituzte eta lehen Ruandan ziztuzten antzekoak dira, zeharo ofizialak. Nire esku egonez gero, seguruenik beste modu batean egingo nuke, programak gaur egungo egoerara egokituz. Garrantzi handiagoa emango nieke zenbait arlori, inguruan dutena hobeki uler dezaten.

**EGUNKARIA.**— Errefuxiatuen egoerak luzaro iraun dezake?

**AROZARENA.**— Iruditzen zait ezin duela denbora luzean iraun, jasangaitza baita. Goman 800.000 daude, baina oro har bi milioi inguru dira. Ez

## PANE LUCRANDO

LETRA CIA DEF CON DOS



ZALDI EROA